

URRETXU ETA ZUMARRAGAKO ETXEORRATZAK

·Zuek bai jakin!: Juan Luis Aranburu ·Erreportajea: Txerri-hilketa Dornaldegi baserrian

·Izerdi patsetan: Igor Olaizola ·Boteprontoan: Ana Peña


Herri Aldizkaria Otamotz

2010eko

abendua

162. alea





**BIZIKLETA
DENDA
BERRIA
URRETXUN**

- Haurrentzako bizikletak
- Mendiko bizikletak
- Errepideko bizikletak
- Arropa eta osagarriak
- Tailerra

LABEAGA, 54
URRETXU



Argitaratzailea: Zintzo Mintzo. Labeaga 12, Urretxu. 943 03 64 74 **Koordinatzailea:** Asier Zaldua **Erredakzio kontseilua:** Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarieta, Jonmikel Intsausti, Sebas Iturriotz, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta eta Asier Zaldua **Diseinua:** Ane Miren Ormazabal **Euskara zuzentzailea:** Marian Toledo **Banaketa:** Aintzane Arizmendiarieta **Publizitatea:** Oihana - 647 319 757 **Inprimategia:** GOI DESIGN **Lege Gordailua:** SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 1.500 ale **Otamotz** aldizkariak ez du bere gain hartzen adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik

aurkibidea

- 04 Hilabete honetako gaia**
Urretxu eta Zumarragako etxeorratzak
- 11 Argazki zaharra**
- 12 Komikia / Egurra partitzen**
- 13 Zenbat buru, hainbat aburu**
Nori eskatzen dizkiozu opariak, Olentzerori ala Erregeei?
Zer eskatu duzu aurten?
- 14 Bota bertsoa! / Iritziz iritzi**
- 16 Klik eta klik**
Iñaki Lizarralde
- 18 Zuek bai jakin!**
Juan Luis Aranburu
- 23 Erreportajea**
Txerri-hilketa Dornaldegi baserrian
- 26 Izerdi patsetan**
Igor Olaizola
- 28 Gure aholkuak**
- 29 Literatura**
- 30 Boteprontoan**
Ana Peña



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko Udalak eta Zumarragako Udalak emandako diru laguntza jaso du. Bestalde, Otamotz Tokikom ekimeneko kide da.

hilabete honetako gaia

Zer moduz bizi zarete hor goran?

Urretxu eta Zumarraga ez dira New York, baina hemen ere badira etxe altuak. Guztiak garai berean eraiki ziren eta zeresan handia eman zuten. Zer moduz bizi ote dira hor goran? Horrenbeste bizilagun izanik, erletegi batean bezala sentituko al dira?



Zumarragako Eitzaga auzoko eraikinak.

Bixi Gartzandia: “Garai hartan ur-eskasia zegoen eta horregatik erosi genuen etxebizitza bigarren solairuan”

Eitzaga Zumarragako kaleko auzo zaharrena da eta baita etxe altuenak dituen ere. 60ko eta 70eko hamarkadetan eraikitako bost bloke ditu eta horietan lehenengoa Bixi Gartzandiarena eta Pello Badiolarena da. Beraiek izan ziren gainera eraikin horretara joan ziren lehenak.

Gartzandiak etxea noiz erosi zuten ondo gogoratzen du: maiatzean 41 urte egingo du. “Hiruzpalau urte lehenago egin zituzten, baina diru asko eskatzen zuten nonbait eta ez zuten bakar bat bera ere saltzea lortu. 550.000 pezeta inguru eskatzen zuten eta guk 390.000 pezetatik erosi genuen. Lehen solairuan piso pilotua zegoen eta bertan Joxe Mari Aranburu egoten zen, nire senarraren lankidea bankuan. Azkenean Pello berotzea lortu zuen eta erosi egin genuen. Hilabete batzuetan bakar bakarrik egon ginen”. Ospelak izan zituela gogoratzen du. “Maiatza zen, baina inor gehiago bizi ez zenez... Sentsazioa oso arraroa zen”.

Dena den, ez da kexu. Auzoko bizilagun askok arazo larriagoa zuten: ur eskasia. “Garai hartan Eitzagan urarekin arazoak zeuden eta horregatik erosi genuen bigarren solairuko etxebizitza. Bestela, gorago hartu genukeen. Guk ez genuen ur eskasirik pairatu, baina auzoaren goialdera zisterna-kamioiak joaten zirela gogoratzen dut”.

Bixi Gartzandia han jaiotakoa da, hain zuzen ere. “Geure kontura jartzeko gogoia genuen eta Eliz-Kalen ere begi-

ratu genuen, baina garestiagoak zirenez eta Joxe Mari beti nire gizonaren gainean zegoenez, hona etorri ginen”.

Urte hauetan guztietan sartu-irten handia izan da. “Hasieran etorri gineneko gutxi gaude dagoeneko”. Hala, bizilagun asko ez ditu ezagutzen. Gainera, halako etxe handietan harremana ez dela

*Bixi Gartzandiaren eta
Pello Badiolaren etxean
48 etxebizitza daude,
baina lehen hilabeteetan
bakarrik bizi izan ziren*

horren estua dio. “Oso independente bizi gara. Izan ere, bigarren solairuan bizi garenez, igogailua oso gutxitan erabiltzen dut”.

Eraikinak 12 solairu ditu eta bakoitzean lau etxebizitza daude. Bi igogailuek nahiko lan egin dute eta erretiratzeko ordua heldu zaie. “Igogailua hartzeko eskailerak igo behar ditugu eta hori eragozpen handia da. Hori dela eta, obra egin behar dugu eta igogailuetako bat behetik irtengo da. Bestea dagoen tokian utziko dugu oraingoz. Egia esan, horrenbeste jende dagoen tokietan asko kostatzen da ados jartzea”.

Zorionez etxea ona da eta, beraz, ez dute obra handirik egin behar izan. “Nik

ez dut kontu horietaz asko ulertzen, baina material onekin egin zela esaten dute. Toki guztietan egin beharreko obrak egin ditugu: fatxada margotu eta halakoak. Ataria, adibidez, lehen eguneko bera da”.

Ondo egin zen, baina Urretxuko etxeorrazak bezala Busca Sagastizabaleko etxeak ere zeresana eman zuen. “Nire familiakoek halako etxe handi batera nola etorri nintekeen galdetzen zidaten. Egun haizetsuetan hamabigarren solairuko bizilagunez gogoratzen naiz. Nik ezingo nuke horren goran bizi. Nirea baino altuagoa nahi nuen, baina hamabigarrenean ez nintzateke biziko”.

Aukeran txalet batera gustura joango litzatekeela dio. “Bizilagun guztiakin hitz egiten dut, baina independentzia asko eskertzen dut. Txalet batean gustura bizi-ko nintzateke. Gurasoen etxean gu bakarrik bizi ginela kontuan izan behar da”.

Esan bezala, bere jaiotetxea gertu du. Bi etxeak Eitzagan daude, baina Bixi Gartzandiari hasieran ez zitzaion iruditzen bere auzoan zegoenik. “Eitzagara noa esaten nuen”. Hala, ez da sekula herriaren behealdean bizi izan. “Ez dakit hemen hobeto edo okerrago gauden, baina hemen bizitzea eroso da. Garai batean denda dezente genituen, baina guztiak itxi ziren. Eskerrak janari-denda berriro ireki zuten. Dena den, Eroski oso gertu dugu. Nik ez nituen dendak faltan bota, baina nire amak bai. Normala da, egunero denda txiki horietara joateko ohitura baitzuen”, amaitu du.

Jose Luis Garmendia eta Mikele Albarracin: “Zubi batek terraza eta Zumarraga lotu behar zituen, baina ez zen egin”

Denok dakigu Urretxuko eraikin altuena zein den. Bi herriotako toki guztietatik ikusten da: ez dago itzala egingo dionik. Gustatu edo ez, *Etxeorratza* sinbolo bat da jada. 60ko hamarkada amaieran eraiki zen eta hamabost solairu ditu: behekoan fruta almazen bat dago, horren gainean lau elkarte daude, ondoren merkataritza eta ostalaritza lokalak eta azkenik pisuak. Hamabi solairu eta 144 etxebizitza, alajaina!

Horietako batean Jose Luis Garmendia eta Mikele Albarracin bizi dira: eraiki zen lehen atariko azken pisuan. “Gu 1969ko otsailean etorri ginen, baina lehenengoak 1968ko azaroan etorri ziren. Gure ataria lehenengo izan zen. Ondoren beste biak egin ziren. Gu dagoeneko hemen geundela bukatu zituzten bigarrena eta hirugarrena”, gogoratu dute. Urretxun sekula halako etxe alturik ikusi gabe zeuden eta batzuk eroriko ote zen beldur ziren. “Bigarren dorrea egin zutenean lasaitu ziren”, dio Garmendiak. Hala, eraikitzaileari kosta egin zitzaion lehen atariko azken solairuko etxebizitzak saltzea. “Gainontzeko bi atarietan, berriz, goiko solairuetako pisuak errazago saldu ziren”.

Garmendiak eta Albarracinek ez zuten beldurrik izan, ordea. “Alde honetako etxebizitza bat nahi genuen, eguzkiagatik, eta azkena hartu genuen. Jendea altueraren eta itukinen beldur zen. Izan ere, gure gainean terraza dago. Kontratastarekin hitz egin genuen eta lasai egoteko esan zigun: Arrasaten an-



Jose Luis Garmendia eta Mikele Albarracin euren etxe bakoian.

tzerako dorre batzuk eraiki zituztela eta han ez zutela arazorik izan”.

Vicon kooperatibak eraiki zuen Urretxuko etxeorratza. Enpresa honek Eitzagan ere lan egin zuen. Bikote honek Eitzagako etxea ere ikusi zuen, baina Urretxukoa gehiago gustatu zitzaion. “Etxe honek argitasun handiagoa du”, aipatu du Mikelek. Ez da harri-tzekoa, inguruan ez baitu bere tamainako eraikinik. Zergatik eraiki ote zuten horren altua eta zergatik ez ote zuten gero parekorik altxatu? “Viconek gainontzeko eraikinen altuera bereko etxeak eraiki behar zituen inguru honetan, baina Urretxu eta Zumarragak institutu baten premia zuten: Urretxuko Udalak

eraikin hau egiten utzi zion, ondoan institutua egitearen truke”, azaldu du Garmendiak.

Urretxuko eraikin handiena ibaitik gertu dago, baina garai hartan ez zegoen zubirik inguru hartan. Jende asko hartu behar zuenez, zubi berria egitea beharrezko ikusi zen. “Garai hartan oraindik Urolako trena zegoen eta zubiak elkarrean terraza eta Zumarraga lotu behar zituen, trenbidearen gainetik. Lokalen jabeek egitea komeni zitzaion, baina urteak pasatu ziren, trena desagertu zen eta zubiak ez zen egin”, oroitu du Garmendiak.

Eraikina egin zen behintzat, nahiz eta ez zen erraza izan. Obra egungoak

baino luzeagoa izan zen, noski. “Ez dakit lanak noiz hasi ziren, baina ezkondu ginen urtean hasita zeudela gogoratzen dut: 1967ko abuztuan lurrikara bat izan zen eta egitura bakarrik zegoen eginda oraindik. Jendea mugitu ote zen begiratzera etorri zen”, dio Mikelek.

Bere senarrak hamabigarren solairuan lurrikararik txikiena ere nabaritzen dela dio. “Duela gutxi beste mugimendu bat izan da. Bat-batean lanpara mugitu zela nabaritu nuen. Haize bolada indartsuek ere etxea mugitzen dute. Hala behar da, bestela erori egingo baitzen”. Dena den, ez dira Urretxuko etxerik altuenean bizitzeaz damu. “Hemengo bista zoragarria da”.

Eraikin altu bateko azken solairuan bizitzeak desabantailak ere badituela onartzen dute. “Bi igogailu ditugu, baina inoiz oinez igo beharra suertatu zaigu. Haurrak txikiak zirenean bizkarrean hartuta igo behar izan genuela gogoratzen dut. Izan ere, elurra egin zuen eta argirik gabe gelditu ginen”. Urretxu moduko herri batean bi igogailu izatea ez da batere arrunta eta ezta horrenbeste bizilagun izatea ere: atari bakoitzean 48 familia bizi dira. Garmendiak eta Albarracinek euren arteko harremana “oso ona” dela diote. “Sekulako obrak egin ditugu eta sekula ez dugu arazorik izan. Aurten ni naiz administratzailea eta lasai asko nago. Hori bai, bilerak asko luzatzen dira”. Guztiek esateko zer edo zer badute, ez da harritzekoa...

Ulertzekoa da Garmendiak bizilagun guztien berri ez izatea ere. “Igogailuan nire botoia bakarrik sakatzen dut, bizilagun berri dezente baitago eta ez baitakit zein solairutan bizi diren”. Zorionez, gu-

Urretxuko eraikina behetik gora begiratuta.



txitan elkartu behar izan dira 148 etxebizitza jabeak. Oraingoan ere ez, fatxada txukuntzen ari diren arren. “Hirugarren atarikoak dira fatxada txukuntzen ari direnak. Guk duela urte batzuk egin genuen. Normalean atari bakoitza bere zatiaz arduratzen da. Garai batean, Barrendiolako urtegia eraiki aurretik, atari bakoitzak bere ur-depositoa eta ur-bonba zituen. Zorionekoak ginen, ur mozketek ez baitziguten eragiten”.

Egun ura eta igogailua edukitzea ez zaigu pribilegioa iruditzen, baina balkoitik bista ederrez gozatzea bai. “Aizkorri, Artzanburu, Irimo, Samiño... ikusten ditugu”. Terrazara igoz gero, berriz, ikuspegia zoragarria da: dena ikusten da. Zoritxarrez, etxeorratza ere toki guztietatik

ikusten da. Garmendiak eta Albarracinek eraikina “itsusia” dela onartzen dute.

Hori bai, ez du inor epel uzten. Bikote hau Etxarrikoa da eta Mikeleren aita lehenengoz etxe berrira bisitan etorri zitzaienean hamabigarren solairutik oinez jaitsi zen zenbait eskailera dauden jakiteko. Jose Luisen anaia batek eta amak, berriz, eraikin berean etxebizitza erosi zuten. “Hamar anaia-arreba ginen eta nire anaiak Urretxuko Irimo enpresara etorri ziren lan egitera. Amak beti semeak joaten ziren tokira joango zela esaten zuen, baina ni soldadutzatik itzuli arte itxaron zuen. Nik ez nuen etorri nahi, baina azkenean...”. Halako etxe handia eraiki behar zela jakin izan balu, Etxarri osoa berarekin ekarriko zuen!

Gurutze Murua: “Balkoiak beldur handia ematen zidan eta seme-alabei sekula ez nien uzten bakarrik irteten”



Gurutze Murua, atzean Argixao futbol zelaia duela.

Zumarragako etxebizitza eraikin altu guztiak ez daude Eitzagan: El Salvador auzoan beste bi daude. Horietako batean Gurutze Murua eta bere senarra bizi dira. Ormaiztegikoa eta Gabiriakoa dira, baina azkar moldatu ziren. Beharko!

Muruak euren etxeak martxoan 42 urte egingo dituela dio. “Lehenengo bestea egin zen eta gero geurea. Etxebizitza bila genbiltzan eta orduan ere diruari ondo begiratu behar zitzaion... Hemen kooperatiba moduan egiten ari zirela esan ziguten eta etorri ginenerako gutxi zeuden libre: zortzigarren, bederatzigarren eta lehen

solairuan bakarrik. Lehenengoan ez genuen nahi eta zortzigarrenkoa erosi genuen”, azaldu du.

Giltza martxoan eman zieten, baina urrian ezkondu ziren eta eztei-bidaiaren ondoren joan ziren El Salvadorrera. Senarrak Zumarragan lan egiten zuen eta horregatik etorri ziren hona bizitzera. “Forjas de Zumarraga enpresan lan egiten zuen eta ez genuen autorik. Urretxun ez genuen pisurik aurkitu eta hona etorri ginen. Garai hartan ez zegoen eskaintza handirik”.

Ordura arte Murua bi etxebizitzako eraikin batean bizi izan zen eta eta senarra,

berriz, baserrian. Hala ere, ez zien beldurrik eman halako eraikin handi batera joateak. “Bizilagunekin oso ondo moldatu ginen eta batzuekin hartueman oso estua dugu. Batzuk kanpotik etorritakoak dira eta euren jaioterrira joan izan gara bisitan”.

Bizilagun asko edukitzera ondo moldatu ziren, baina zortzigarren solairuan bizitzen ohitzea gehiago kostatu zitzaien. “Balkoiak beldur handia ematen zidan. Seme-alabei sekula ez nien uzten balkoira irteten. Atea

*Atarian 54 familia bizi
dira: etxeak bederatzi
solairuko bi atari ditu
eta bakoitzean sei
etxebizitza daude*

itxita izaten nuen beti. Lagunduta bakarrik irteten ziren”. Haizearen ufadak ere beldurgarriak izaten dira Zumarragako goialde horretan, baina egungo leihoekin gutxiago nabari direla dio. “Lehengoeikin haize hotsa entzuten zen eta haizea zirrikituetatik sartzen zen. Ziklogenesi delakoa izan zenean haizeak tximini bat bota zuela oroitzen dut”.

Bestelakoan, etxearekin gustura da. Dena den, 40 urte asko dira eta obrak egin behar izan dituzte: berogailua jarri, aipatutako aluminiozko leihoak jarri... “Ilogailuak



Gurutze Muruaren atariko buzoiak.

duela urtebete pasatxo berritu genituen. Ataria bakarrik berritzeko asmoa genuen, baina igogailuak kale egiten hasi ziren eta dena dena berritzea erabaki genuen. Orain pintaketa lanak egiten ari dira. Beti dago zer edo zer. Asko gara, baina egitekoak ere asko dira”.

Izan ere, atarian 54 familia bizi dira: etxeak bi atari eta bederatzi solairu ditu eta bakoitzean sei pisu daude. “Bi bloke haue-tan Ormaiztegin bezainbeste lagun bizi garela esan ohi dut”, dio Muruak txantxe-tan. Dena den, atariko bilerak ez omen dira bereziki luzeak izaten. “Ez dugu seku-la liskar handirik izan”.

Gustura bizi dira, beraz. Gainera, eroske-ta gehienak auzoan bertan egiteko aukera dute. “Harategia, arraindegia eta janari-

denda izan ditugu, baina arraindegia itxi egin zen. Astean behin jaisten naiz herrira erosketak egitera. Haragia, berriz, beti

*Gurutze Muruaren
senarrak epel-epelean
ikusten ditu kirol
partidak: telebistan
pilota eta leihoan futbola*

hemen erosten dugu. Herrira ez jaisteaga-tik lehen baino arrain gutxiago jaten dugu-la uste dut. Eliza ere beti izan dugu”.

Dena den, garai batean herri erdira joateko gogoia izan zuten. “Batzuk sartzen dira halakoetan, baina niri beldurra ematen zidan. Lasaiago egongo ginenerako uztea erabaki genuen eta dagoeneko konforma-tu egin gara. Gure adinarekin ez du mere-zi halakoetan sartzea. Urretxu beti asko gustatu zaigu, baina hemen geldituko gara lasai asko”.

Herriaren erdialdetik urrun samar daude, baina trukean bista ederrak dituzte: Argixao futbol zelaia, Izazpi, Txindoki... ikusten dira euren etxeko leihoetatik. Senarrak Urolaren partidak leihotik ikus-ten dituela dio. “Epel-epelean ikusten ditu partidak: telebistan pilota eta leihoan fut-bola”, amaitu du Ormaiztegin Zumarragara etorritako lagunak.

UROLA

ELEKTRATRESNAK

☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 02 15
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA



HARATEGIA URDAITEGIA

☎ 943 72 00 61
Leturiatarren enparantza, 2
ZUMARRAGA

MURUA

Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

centro óptico
JAVIER Arratibel
optika

Ikusmenaren neurketa - Begietako
tentsioaren neurketa - Graduatuak
eta eguzkitarako betaurrekoak -
Lentilak - Termometroak eta
barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA
☎ 943 72 54 84

Egumendi, S. L.

Manganeso altzairuaren
aplikazio teknikoak

Ipeñarrieta, 48
☎ 943 72 33 01 - Fax: 943 72 43 41
Urretxu-Zumarraga
www.egumendi.com
egumendi@egumendi.com



Ekarri zure argazkiak eta nahi
duzun moduan aterako ditugu:
koadroak, mihiseak, muralak...

Labeaga, 35 Urretxu 943 72 41 60

BIONA

AROSZTEGIA

Altzariak neurritan

☎ 943 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU



SUTAN

Tximiniak, berogailuak, sukaldeak eta estaldurak
☎ 943 72 06 38 - 665 73 73 02 Fax: 943 72 06 38
Mugitegi poligonoa, B bidea, 6 bajua - URRETXU
www.sutan.biz - sutan@sutan.biz

PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO
PREBENTZIO ZERBITZUA

KALITATEZKO ZERBITZU
ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA
ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia
20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)
943 72 41 00
administracion1@premank.com

PLAZAOLA ITURGINTZA

Bide-Zar, 5 ZUMARRAGA
☎ 943 72 13 70
Fax: 943 03 75 68



- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 943 03 75 27

Montaje e Instalaciones Electricas

HERCE

Electricistas M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantenua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU



Construcciones MENDIOLA

Labeaga, 9. Tf. 943 72 05 11 - Fax: 943 72 44 10
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
Email: mendiola@cmendiola.com
www.cmendiola.com

asirauto

BIGARREN ESKUKO AUTOEN
ESKAINAZA ZABALA

Mugitegi industrialdea, Urretxu
943 72 59 22
659 67 89 79



Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 - URRETXU
☎ 943 72 25 13



TABERNA

JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA



Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Mediku-homeopata kontsulta
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80



alejandro albisua

☎ 943 72 52 22
Soraluze, 6 - Zumarraga



SUKALDEAK

Ipeñarrieta, 5 - ☎ 943 72 50 75 - URRETXU
Udala enparantza - ☎ 943 79 00 43 - ARRASATE
San Lorenzo, 1 - ☎ 943 53 35 48 - OÑATI



MERTZERIA

Sekundino Esnaola, 2 - Zumarraga
Tel. 943 72 05 62

Otamotz

Herri Aldizkaria

Oihana - 647 319 757 - beasain@iragarri.net


TOKI APROPOSA
DUZU HAUXE
ZURE IRAGARKIA
JARTZEKO

1944

Antzerki taldea


Horra hor Legazpin eta Zumarragan Carlos Arnichesen *La locura de Don Juan* lana antzeztu zuen taldea. Goran: Juan Pedro Maidagan (oroitarazlea), Merche Aristegi, Marisol Gonzalez de Audikana, Carmen Lasa, Arantxa Artetxe, Conchita Errekalde eta Aurelio Garcia (keinua egiten ari dena). Makurtuta: Teodoro Lasa, Felix Mendia, Luis Mari Garin, Jose Mari Arizmendi eta Virgilio Alvarez. Eskuinean apenas ikusten dena: Ignacio de la Fuente zuzendaria.





egurra partitzen

Jon Torner
Jon Ormazabal



‘Otaleaks’

Bere filtrazioak *El País*, *The Guardian* edota *The New York Times* bezalako medio iraultzaileei eskaintzen dizkiola jakinda, bertsio ofizialak beste modu batera zabaltzeko muntaia ez ote den zalantza dugun arren, gu ere gure *Otaleaks* partikularra muntatzeko asmotan gabiltza eta hurrengo aleetan sakondu nahi genituzkeen zalantzak plazaratuko ditugu, ea norbait kable bat botatzeko moduan ote dagoen ikusteko.

Era guztietako galderak ditugu, erantzunak falta zaizkigu, ordea. Esaterako, jakin nahi genuke ze harreman dagoen gure bi udalen eta koloretako argi ekoizleen artean. Gure New Yorkeko enbaxadore berriari galdetuko diogu, baina ez dugu uste han horrenbeste egongo direnik.

Deigarria egiten zaigu baita ere, nola den posible Zumarragako udalean batzordeetara joateko zailtasun gehien duen taldea izatea kutsaduraren inguruan bere iritzia eman duen bakarra.

Agintariak kezka handia dute tabernetara joaten garenon osasunaren inguruan, baina gero kalean edozer arnasteak berdin dio? Ostruka gehiegi honen inguruan ere.

Teleberria aurkeztu aurretik Balentxi orrazten duenak ere mereziko luke kapituluren bat. Ez hartu txarrera Johnny, baina tupe horiek ikustera ez gara ohitzen. Inbidia kontua izango da.

Horrenbeste zalapartaren ostean, Urretxuko arau subsidiarioekin zer gertatu den ere inork esplikatu baligu bihotzez eskertuko genuke, herritik kotxez ibiltzea baino zailagoa iruditzen zaigu eta. Antioko jatetxearenaz zer esan. Egurrezko etxetxo erre zela, edo erre zutela, urte piloa joan da eta berdin gaude. Chillida Leku bideragarria ez bada interpretazio zentroa nola kudeatuko duten esplikatzea ere ez litzateke txarra. *Sordorenetik* ezer erosi gabe irten direnen zerrenda, nor den Jon gaiztoa... Galderak ez dira falta.

Nori eskatzen dizkiozu opariak, Olentzerori ala Erregeei? Zer eskatu duzu aurten?



Beñat Leunda



Olentzerori eskatzen dizkiot opariak. Aurten Robot-raptor eskatu diot. Hori zer den? Dinosauru erroberta. Karnotauru bat da, hain zuzen ere. Haragijalea zen. Gaiztoa. Lau hanka-koak zintzoak ziren eta bikoak gaiztoak. Eskolan dinosauru-erri buruz ikasten ari gara eta oso gustukoak ditut.

Mikel Iglesias eta Iker Ruiz



Opariak Olentzerori eskatzen dizkiogu. Nik oraindik ez diot ezer eskatu (Mikel). Nik aurten patinak eta bizikleta eskatu behar dizkiot (Iker).

Lander Aranburu



Opariak Olentzerori eskatzen dizkiot. Aurten patinetea eta linterna bat eskatu dizkiot.

Markel Rivas




Biei eskatzen dizkiot opariak. Aurten mikrofono bat eta Bob Esponjaren arrainontzia eskatu dizkiot. Bob Esponja asko gustatzen zait.

Gaia: Demagun hau dela erreko duzun azken zigarroa, esan iezaiozu agur.

Doinua: Itsasoari begira

Andoni Egaña




Zenbat momentu pasa ditugun
momentu eder ta bapo,
zuri eskerrak nere burura
heldu da ideia franko,
orain adio esan behar nik
kaltegarri zeralako,
agur rubia, agur bihotzez,
hau hori eta halako,
egia zen bai amodiorik
ez dela behin betirako.

Ez dakit dugun arrazoi edo
soilik dugun aitzakia,
esaten dute zu biriketan
maiz zaudela atxikia,
neri irripar egin zuk ta nik
alaitzen dut bekokia,
lantegia da galerazia
desegoki antzokia,
ba nik ordua jarriko dizut,
zeuk aukeratu tokia.

Propagandaren indarragatik
zabaldu duten izua,
izan liteke interesdunen
aholku edo mezua,
akabo gure amodioak
zuen indar ta pisua,
akabo nere zerua eta
zuk zendun paradisia,
bihotz-bihotzez emango dizut
nere azkenengo musua.

iritziz iritzi


Gotzon Aranburu



Burutapenak

Pintada bat ikusi dut gaur goizean Kalerrotan. "Gitanos no" dio. «Ijitoak gizartearen parte gara, eta gu bertan parte hartzeko prest gaude» esan du Junkal Dualek *Goierriko Hitzan*. Lehengokoan, elkartean afaltzen ari ginela, herrian bizi diren errumaniarren gaia irten zen. Gero ijitoetara pasatu ginen. Erdi txantxetan hasi ginen eta erdi hase-re bukatu genuen. Igandean, ogia erostera nindo-ala, emakume errumaniar bat zegoen eskean okindegiko atean. Zerbait eman, ez eman, egon nintzen. Ematen banion eskean jarraitzera bultzatu nuela pentsatu nuen eta eskatzea norberaren duintasunaren aurkakoa dela; gero haren umeek Gabonetan izango duten oparia eta gureek izango dutena etorri zitzaidan burura. Oraintxe urtebete,

manifestazio batean ibili nintzen herrian barrena, israeldarrek Gaza bonbardatu zutela eta protesta egiteko. Bertako jende pixka bat bazegoen, baina gehienak marokozarrak ziren, eta sutan zeuden. Palestinako bandera handi bat zeramaten manifestazioaren buruan. Duela egun batzuk, Marokoko polizia eta herritarrek Aaiungo sahara- rrei egindako erasoarengatik protesta egiteko elkarretaratzea izan zen. Berrogeita hamar bat lagun geunden, denak bertakoak. Sahararen aldeko jaialdia izan da Zelai Ariztin. Ekitaldira dei-tzeko kartelean bi bandera azaltzen dira, ikurriña eta Saharakoa. Kartel horietako askotan norbaitek Saharakoa puskatu du. Berrito jarri dituzte kartelak. Konturatu naiz "bertakoak" idatzi dudala.



Berbeta berua

Alberto Telleria

Alberto Telleria elgetarrak Badihardugu Euskara Elkartearen eskutik egindako lan hau ez da eleberria, ezta lasai irakurtzeko poesia-bilduma ere. Honakoa kontsultarako, erabilerarako eta hausnarketarako liburua da. Irakurleak ezaugarri fisikoei, taberna giroari, sexuari... lotutako hainbat hitz eta esamolde aurkituko ditu bertan. Tabuz eta eufemismoz beteriko lana da, alegia. Auzo hizkera batean idatzita ego-

tea ez da ulermenerako oztopo, txokoke-riak alde batera utzita, euskarak egun duen hutsune handi bat betetzera baitator. Laburbilduz, hizkuntzaren adierazkortasunean eraginez, hiztunak aberastea helburu duen lana da. Interneten ere irakur dait e k e : www.badihardugu.com/argitalpenak/berbeta_berua. Heldu iezaiozu, baldin eta ausartzen bazara!



Yield (1998)

Pearl jam

Hainbat arrazoiengatik niretzat balio simboliko handia dauka disko honek. Bestalde, sekulako diskoa iruditzen zait musikalki. Ez zuten ezer asmatu, ez zuten ezerekin apurtu, baina une hartan gailurrean zeuden Seattle-goak (AEB), eta a zer nolako abestiak osatu zituzten. Kontzeptuak edo ideiak gorabehera, zer dira diskoak gustura sartzen diren kantarik gabe. Zuzenak dira, gogorak eta gordin samarrak ia gehienak

(bikaina *Do the evolution*, esaterako), eta intentsitate handikoak, maisuak baitira horretan. Horren erakusle, *In hiding* eta *Faithfull*, adibidez. *Wishlist*, aldiz, samurragoa da, klasiko bat, ederra eta zirraragarria. Eta ezin *Low light* ahaztu, argi gutxirekin eta goxo entzuteko aproposa, hain zuzen ere. *Yield...* Eman bidea aizkolari alkondaradunei!

Igor Susaeta



El hombre que mató a Liberty Valance

John Ford

John Ford zuzendariaren lan onenetakoa da eta Dorothy M. Johnson-en *Urkatuaren zuhaitza* eleberrian oinarritua dago. Diru faltagatik filmatu zela zuribeltzean esan izan da, baina ez da hala: hasiera hasieratik hala egiteko asmoa zuen zuzendariak. Ford-ek istorioari garrantzia eman nahi zion eta horretarako paisaia ikusgarriari ere uko egin zien: pelikula ia osoa estudioan filmatu zen. Bere ohiko antzez-

leekin lan egin zuen, baina rolei buelta emanek: John Wayne heroia gainbehera ageri da eta justiziaren buru, berriz, tiro egiten ez dakien James Stewart. Antzinako idealek porrot egin dutela irudikatu nahi duela dirudi. Ostegun honetan pelikula mitiko hau pantaila handian ikusteko aukera izango dugu: 22.15ean, Zelai Ariztin, doan. Ez galdu aukera bikain hau!

ButaK 21 zineklub taldea



▼
Quintanar de la Sierra herriko Arlanza kanpin lasaia. Familiarekin joateko aproposa. Hurrek igerilekuan eta inguruko mendietan, giro osasuntsuan, primeran pasatzeko aukera dute. Neilako lakuak, Vinuesako Laguna Negra, Urbion eta Tres Provincias tontorrek, Castroviejo, Covarrubias, Rio Lobos...

Iñaki Lizarralde





zuek bai jakin!

Juanlu Aranburu: euskal musikaren suspertzailea

Juan Luis Aranburu urretxuarra euskal musika suspertzeko lan egiten duen musikaria da: euskal kantak jotzen ditu bere akordeoiarekin eta Euskal Kantuzaleen Elkarteko koordinatzailea da. Garai batean Patxi Saezekin jo zuen, Pako Aristi eta Mikel Markezekin ere lan egin zuen eta egun Bentazarreko Mutiko Alaiak taldeko kidea da.

Juanlu Aranburu bere akordeoiarekin.



Zer diozu zure gurasoez?

Nafarroako eta Gipuzkoako odola dut, aita Ezkiokoa baita eta ama beratarra. Horrek Euskal Herriko alderdi ezberdinak ezagutzeko aukera eman dit. Amaren bitartez mugaz bestaldeko tokiak ezagutu ditut, Sara inguruan lehengusuak baitituz. Euskalkiak ezagutzeko aukera ere izan dut. Bortzirietakoa oso polita da. Gurasoak xumeak eta langileak dira. Horrekin lotutako hainbat anekdota daude, baina bat bereziki gustatzen zait. Gurasoek okindegian lan egiten zuten garaian etorkin pila bat etorri ziren. Familia askok ez zuten ogia ordaintzeko dirurik, baina gurasoek eman egiten zien. Koadernoan sekulako zordun zerrenda zegoen. Familia horietako bateko aita Alemaniara joan zen lan egitera eta gurasoek hemen utzi zituenak ogiz hornitzen zituzten. Itzuli zenean aita horrek zorra kitatu zuen eta opari bat egin zigun: akordeoi bat. Horregatik hasi nintzen akordeoia jotzen. Aitak ikasteko aukera eman zigun eta ni izan nintzen besoa altxatu nuen lehena. Gurasoen lanari eta eskuzabaltasunari esker izan nuen akordeoia jotzen ikasteko aukera.

Zenbat anaia-arreba zarete?

Hiru anaia eta arreba. Aita zen akordeoia jotzen agoantatzen ninduen bakarra. Beste guztiek jotzeari uzteko edo beste nonbaitera joateko esaten zidaten. Akordeoi hura saldu egin nuen eta orain pena ematen dit. Instrumentu oso ona zen eta noizean behin herriko akordeonista bat etortzen zen jotzera izorratu ez zedin. Hala sartu zitzaidan belarrietatik akordeoia jotzeko gogoia.

Aita Ezkiokoa duzue eta ama Berakoa.**Nolatan ezagutu zuten elkar?**

Zoritxar guztiek ekartzen dute zer edo zer ona. Aita Iruñean ari zen soldadutza egiten eta Irunera gerturatzeko aukera izan zuen okina zelako. Bertako okindegian lanean ari zela ezagutu zuen ama. Garai batean kanpokoak errezeloz begiratzten zen eta epelak entzun behar izan zituen bertako neska bat herritik eraman behar zuelako.

Aita okina zela esan duzu. Eta ama?

Ettxekoandre tipikoa: beti isilik, beti lanean,

*“Gurasoen lanari eta eskuzabaltasunari**esker izan nuen**akordeoia jotzen**ikasteko aukera”*

beti pozik, sekula inongo minik ez... Emakume belaunaldi horretaz behin baino gehiagotan gogoratuko gara. Etxea ez zen ezer eurak gabe.

Nola gogoratzen duzu haurtzaroa?

Bero-bero, labe gainean bizi ginen eta... Motz taberna dagoen tokian bizi ginen. Ultramarinos La Estrella izeneko denda zegoen eta bertan labe bat zegoen ogia egiteko. Azken solairuan jaio ginen eta gero behera joan ginen. Irin zakuen artean jolasten genuen. Haurtzaroa Urretxuko pilotalekuan, plazan eta okindegian eman genuen.

Lan egitea ere tokatuko zitzaizuen...

Bai, bai... Nire belaunaldiko gazteek sekulako inbidia ematen zidaten. Izan

ere, gu ogia banatzera joan behar izaten genuen larunbat goizetan aitarekin: motxilatxoa hartu, tinbrea jo eta ogia banatu. Aitari igande goizean lana egitea suertatzen bazitzaion, gu berarekin joaten ginen. Gurasoek irakatsi didate lana zer den.

Zein eskolatarra joan zinen?

Ikastolara. Sekula ez diet horri buruz galdetu, baina poztekoa da: ez ziren oso aberatsak eta hala ere ikastolaren aldeko apustua egin zuten. Beharbada gurasoek ezin izan zuten ikastolaren alde asko lan egin, larunbata eta igandea lanean ematen baitzuten. Ikastolako oroitzen oso politak ditut.

Non ikasi zenuen ondoren?

Institutuan. Une hartan ez zegoen beste aukerarik. Ondoren Magisteritza eta Hezkuntza Berezia ikasi nituen. Lanerako aukera handirik ez zegoen eta udaltzain sartu nintzen. Diru pixka bat behar nuelako sartu nintzen, urte batzuetara uzteko asmoarekin. Baina erosotu egin nintzen eta urte pila bat eman nuen. Ofizio horretan urte gehiegi eman nuen errezeloa dut. Hasieran kideen arteko harremana oso ona zen, baina gero ardura hartu nuen eta arazo handienak etxean bertan izan nituen: politikariekin eta beste sailletako lankideekin. Giroa txartu egin zen, kalean ere arazoak izaten ziren, eta uztea erabaki nuen: nahiago dut baiezkoa eman beti debekatzen ibili baino.

Antzuolara joan zinen.

Oposaketak izan ziren eta gehiegi prestatu gabe joan nintzen, baina zortea izan nuen. Aldaketa oso onuragarria izan zen: nire bizitzako urterik oparoenak izan ziren. Egiten dakidana hori

zuek bai jakin!

dela konturatu nintzen. Jendea gustura uztea oso pozgarria da eta horren alde egin nuen apustua. Zertarako gai naizen eta jendearekin lan egiteko ahalmena dudala ikusi nuen. Beste baten postuan nengoen eta banekien hura bukatuko zela. Urretxuko udaletxera itzultzea traumatikoa zen, baina zortea izan nuen: hilabetean bi probatara aurkeztu nintzen eta bietan hautatu ninduten. Urtebete eman nuen Donostiako Kirol Patronatoan eta Kontseiluan lan egiteko

“Gazteei jendaurrean

kantatzeko eta barruan

dutena erakusteko

aukera eman

behar zaie”

aukera ere eman zidaten. Kontseiluan jarraitzen dut.

Zer lan egiten duzu Kontseiluan?

Euskaraz Bai dinamika zabaltzen dut herrietan. Gure betebeharra herrietan egiturak sortzea da, euskararen aldeko kanpainak eta proposamenak bideratzeko. Helburua arlo soziala dinamizatzea da. Egitura sendoak sortu nahi ditugu euskararen garapena lortzeko. Kontseiluan oso gustura nago. Lan talde polita dugu.

Noiztik zaude Euskal Kantuzaleen elkartean?

Ez da oraingo kontua. Batzordean bospasei urte daramatzat eta lehenago ere elkartearekin harremana nuen. Musikak beti erakarri nau. Hemengo lagunek asko

Juanlu Aranburu bere lehen Euskal Jaian.



Juanlu Aranburu Patxi Saizekin.



lagundu didate eta Patxi Saez kantariak berarekin jotzeko deitu zidanean saltoa eman nuen. Euskal Kantuzale Elkartearekin harremanetan jarri nintzen, ahuleziak ahulezia egitasmo oso erakarria iruditzen baitzait. Euskal Herriak halako elkarte bat behar zuen eta laguntzea erabaki nuen. Duela urte eta erdi Ainhoa Ansa koordinatzaileak uztea erabaki zuen eta han bertan nengoen, Martin Ugalde kultur parkean, koordinatzaile lana hartzea eskaini zidaten.

Zer lan egiten duzu Kantuzale Elkartean?

Batzordea dugu eta urtean zehar lan puntualak egiten ditut. Txapelketen koordinazioa, esaterako. Badakigu lehenago edo beranduago urte osoko lanketak egin beharko ditugula eta apustua egin beharko dut. Niri kantagintzaren inguruan lan egitea gustatuko litzaidake. Nire erronka Euskal Herri mailako elkarte sendoa lortzea da. Egun lurralde bakoitza bere alde-

tik dabil eta batasuna lortu nahi dut elkarrekin sendotzeko.

Zuen helburu nagusia kantuzaleen bultzatzea izango da.

Gure proiektua hiru zutabetan oinarritzen da. Lehen helburua harrobia lantzea da eta horretarako txapelketak antolatzen dira. Batzuek egun ez dagoela erreferentziatzeko musika talderik eta krisian gaudela esaten du, baina ezerezetik ezin da ezer sortu. Azpian lan egiten bada, ez da ezer sortuko. Gazteei jendaurrean kantatzeko eta barruan dutena erakusteko aukera eman behar zaie. Horretan ari gara eta aurtengo txapelketako parte hartzaile guztiak berriak dira. Bestalde, iazko txapelketako batzuk kontzertuak eskaintzen ari dira dagoeneko: Emon eta Lain taldeak, adibidez.

Zeintzuk dira beste helburuak?

Bigarren helburua zaletasuna susperitzea da. Horretarako, herrietan sortzen

ari diren kantu taldeak koordinatu nahi ditugu. Durangoko Azokan, abenduaren 5ean, kantu jira nazionala izan zen guk antolatuta. Talde guztiak Durangora joan ziren eta kaleetan bi saio egin zituzten, eguerdian eta arratsaldean, kantuzaletasuna erreibindikatzeko.

Zein da hirugarren zutabea?

Kantari profesionalekin harremana sortu nahi dugu. Beraiei zerbaite eskainiko diegu eta beraiengandik zerbaite jaso nahi dugu. Euren aldeko apustua eskainiko diegu:

*“Kantari onak daude,
baina ez dute laguntzarik:*

hedabideek ez diote

tarterik eskaintzen

euskal musikari”

erakundeei euskal kantagintzaren aldeko politikak bultzatzea eskatuko diegu. Kantariengandik zer nahi dugun? Gazteen erreferentzia direnez elkartean sartzea eta laguntzea eskatuko diegu, besterik ez bada bazkide eginez.

Nola ikusten duzu euskal musika? Garai hobeak bizi izan dituela dirudi.

Noski. Bizitza halakoa da. Ez dakit oraindik bizi izan dugunaren garrantziaz jabetu garen. Euskal kantagintza berriaren aurretik, 1960 aurretik, Labegerie aurretik, ez genuen erreferentziazko abeslaririk. Iparragirreraren ondorengo guztiak bertsolariak ziren. Euskal kantagintza berria ilunpetik sortu zen eta iraultza izan zen. Batzuentzat gogorra

Daxeko folklore jaialdian.



ere izan zen. Mikel Laboak txistuak jaso zituen, zenbaitentzat berak egiten zuena ez baitzen euskal kantagintza. Gezurra dirudi, baina Benito hor dago oraindik... Ondoren, zer? *Rock Radical Vasco* delakoarekin beste mendi bat igo genuen, baina oraingoa trantsizio unea da. Talde eta kantari onak daude, asko, baina ez dute laguntza handirik: hedabideek ez diote batera tarterik eskaintzen euskal musikari. *EITBk* ateratzen dituen diskoek, *Gu Gira* eta halakoek, barrea eragiten didate. Noiz ikusi dugu Mikel Laboa *ETBn*? Zer harreta eskaini diote Su Ta Gar taldeari? Trantsizio fasean gaude, baina gaintituko dugu. Horretarako, lan egin behar da: jendea hezi eta jende horri lana erakusteko aukera eskaini. Askok ari da kostatzen, baina ziur naiz musika mota ezberdinak jorratuko dituen jendea irtengo dela. Gure helburua horiek guztiek euskaraz lan egitea izango da.

Zu zeu musikaria zara. Norekin ikasi zenuen akordeoia jotzen?

Legazpiko akordeonista batekin hasi nintzen: Paternainekin. Ondoren Legazpiko beste batekin aritu nintzen, baina Ordiziako Aierberekin ikasi dut gehien. Munduko txapelduna izandakoa da eta bere ikasleetako batzuk akordeonista oso onak dira: Benitoren jotzen duen Peio Ramirez eta Garikoitz Mendizabal txistulariarekin jotzen ari den Xabier Zabala, esaterako.

Zer ibilbide osatu duzu musika munduan?

Euskal kantagintza asko gustatzen zait eta etxean guztien abestiak atera nituen. Hortik aurrera, toki guztietan abesti horiek abesteko aukera izaten nuen. Ondoren Patxi Saezek deitu zidan, Pako Aristirekin eta Mikel Markezekin beste abentura batzuk izan nituen eta azkenean hemengo lagunekin Bentazaharreko Mutiko Alaiak egitasmoa martxan jarri nuen.

zuek bai jakin!

Arrakasta handia izan duzue.

Garaiak eta formatoak aldatu egiten dira. Jende askok kantatzeari utzi dio aretoak betetzen ez dituelako. Egia esan, gaur egun ez diot inori gomendatzen larunbat gau batean kontzertua antolatzea. Oso ona izan behar da edo komunikazio plan indartsua abian jarri aretoa betetzeko. Formato txikiko kontzertuak ugaltu egin dira. Guk ez dugu kontzertua eskaintzen, kalea dinamizatu baizik: jendea gurekin egotera eta betiko kantuak gurekin abestera gonbidatzen dugu. Formato hau kultur teknikarientzat erakargarria da, kaleak animatzea eta parte hartzea suspertzea lor-tzen baita.

Txarngak ez al zaizkizue haserretu?

Ez. Modak eta beharrak aldatu egiten dira. Aspaldi honetan ez dut jendea txarangen atzetik dantzan ikusten. Ohiturak aldatu egin dira eta onartu beharra dago, kantariak dagoeneko ezin duela gaueko kontzerturik eskaini onartu behar izan duen moduan. Irudimena landu behar da.

Zuek gustura zaudete.

Ez diogu geure buruari asko eskatu. Entsaizteko denborarik ez dugunez, kalean entsaiatzen dugu. Urtean 30 bat emanaldi eskaintzen ditugu. Herri batzuetatik urtero deitzen digute. Zorte handia dugu: gustatzen zaiguna egiten dugu, jendea gustura uzten dugu eta gainera kobratu egiten dugu. Dena den, gure helburu nagusia euskal kantagintzaren aldeko dinamika sortzea da: kanta hauek kalean entzunaraztea eta ezagutaraztea.

Zein da zuen plaza kuttuna?

Ondarroan oso emanaldi potentea eskaini genuen, baina Orioko Goiko Kaleko festa



Bentazaharreko Mutiko Alaiak taldeko lagunekin Euskadi Irratian.

da gure kuttuna. Urtero joaten gara.

Zein da zure musikari kuttuna?

Ez. Jendeak adarra jotzen dit: Xabier Leteren ondorengo ezer ez nuela entzun esaten didate, haurra jaio eta Pirritx eta Porrotx entzuten hasi nintzen arte. Tarteko guztia galdu nuela. Hori ez da hala, baina Imanol, Benito eta enparauen letrak sekulakoak iruditzen zaizkit. Zerbait esaten zuten. Egun, askotan, ez da fundamentuzko ezer entzuten. Haien letrak sekulako edukia zuten. Haiekin gelditzen naiz.

Semea ere musika zalea al da?

Ez dut gehiegi behartu. Musika eskolara joaten zen. Erakargarria iruditzen zitzaion, baina horretarako ere gogor lan egin behar dela konturatu zenean utzi egin zuen. Egun dultzaina ikasten ari da lagunekin eta Joxe Mari Lasaren laguntzarekin. Ea gozatzen duen. Beti esaten diot nire asmoa ez dela bera musikaria izatea,

baina badakidala instrumentu baten bitartez bizitzan asko gozatuko duela, lagun asko egingo dituela eta toki asko ezagutuko dituela.

Musikaz gain, beste zaletasunik ba al duzu?

Kirola beti asko gustatu zait. Esan bezala, umetan gure bigarren etxea pilotalekua zen. Pilotan hasi nintzen eta herriartekoa jokatu nuen Juanjo Sagastibeltzarekin. Baina jolasten ari nintzela iltze bat sartu nuen eskuan eta ordutik pilotan jokatzen nuen bakoitzean mina sentitzen nuen. Futbolearen ondo ibiltzen nintzen. Urolan sartzeko aukera izan nuen, baina ez nintzen sartu. Goierriren areto futbol taldean atezain jokatu nuen eta kito. Ordutik neure kasa ibili naiz: mendian, bizikletan... Bestalde, herri-bizitza asko gustatzen zait: lagunekin egon, parranda egin, kulturgintza...

Abendua, txerria hiltzeko garaia Urretxuko Dornaldegi baserrian

Garai batean inguruko baserri guztietan egiten zuten txerri-hilketa. Egun garrantzitsua zen, txerriak negua igarotzeko behar zuten janaria ematen baitzien. Dagoeneko baserri askotan ez dute txerririk, baina Urretxuko Dornaldegian garai bateko ohiturari eusten diote. Abenduko lehen asteburuan senitarteko guztiak elkartu ziren eta hiru hil zituzten.

Txerriaren hilketan parte hartu zuten gizonetakoak.
Argazkiak: Gotzon Aranburu.



Dornaldegi baserrian tradizioa ez dela galduko dirudi, gazteak bizirik mantentzeko prest baitaude. Andoni Elgarrestak 27 urte bakarrik ditu, baina urte asko daramatza dagoeneko txerri-hilketan eta honen inguruan antolatzen den festan parte hartzen. Gaztelerazko esaera zaharra animalia hau San Martinetan hiltzen dela ematen du aditzera, baina inguru honetan abenduan hiltzen da. “Gure etxean abendua hasieran izaten da. Izan ere, hotz egitea beharrezkoa da: animalia arratsaldean hiltzen da eta ondoren gau guztia hozten uzten da. Zenbat eta hotz handiagoa, izoztu gabe, hobe”.

Gogor lan egitea tokatzen da, baina festa garaia ere bada. “Hilketaren ondoren janaria dagoenez, badago zer ospatu. Gaur egun ez dugu elikagai eskasia, baina garai batean gauzak oso bestelakoak ziren. Gainera, ez zegoen egungo kontserbazio sistimarik. Jakiak gatzetan gordetzen ziren eta aste gutxiren barruan jan behar ziren. Hala, beti garaian garaikoa jaten zuten”.

Txerri-hilketan familia guztiak parte hartzen du, baita dagoeneko kalean bizi direnek ere. Ondoren, jeneroa den artean banatzen dute. “Garai bateko moduan hiltzen dugu txerria. Gutxienez sei lagun behar dira horretarako: lauk hankak eusten dizkiote, beste batek labana sartzen dio eta seigarrenak odola jasotzen du. Bitartean, emakumeek odolkiak egiteko berdura txikitzen due. Ondoren txerria erre egiten da gogortzeko eta hala azala kendu ahal izateko. Urarekin garbitu ondoren, tripak ateratzen zaizkio eta hurrengo egunera arte zintzilikatu egiten da. Goizean zati-

tu egiten dugu, txorizoen masa prestatu, odolkiak egin...”.

Andoni Elgarrestak primeran ezagutzen du prozesua, umetatik parte hartzen baitu. “Oso txikia nintzela helduek nola lan egiten zuten ikusten nuen eta, egia esan, ohitura polita iruditzen zait. Lehen aitari aiztoa pasatzeaz edo garoa eramateaz arduratzen nintzen, baina orain animalia eusten duenetako bat naiz. Txerrikumeak udan ekartzen ditugu eta abenduan hiltzen ditugu. Beraz, ez dute 100 kilo baino gehiago hartzen. Zenbait eta txikiagoa izan orduan eta errazagoa da eusten, noski. Lasai egotea ere oso garrantzitsua da, bestela animalia urdu-ri jartzen baita”.

Elgarrestak txerria hiltzea ez dela atsegina onartzen du. “Garraisi handiak egiten ditu eta mundu guztia ez da hori jasateko gai”. Euren ere ez dute gozatzten. Baserrian egin beharreko lanetako bat da, besterik gabe. Festa ondoren hasten da. “Egun horretan guztiok elkartzen gara eta, lana bukatu ondoren, elkarrekin afaltzen dugu. Baserrian lo egiten dugu eta hurrengo egunean, gosalduta, lana bukatu eta elkarrekin bazkaltzen dugu”.

Urretxuko gazteak Dornaldegian txerria betiko moduan hiltzen jarraituko dutela dio, gutxienez legeak uzten dien bitartean. Izan ere, haragia norberak jaten duen bitartean, betiko moduan hiltzea legezkoa da. Hilketaren ondoren Elgarrestatarrek lagin bat eramaten diote albaritariari animaliak gaixotasunik ez zuela ziurtatzeko. “Trikinosi proban positibo ematen badu, ez da jatea komeni. Dena den, sekula ez zaigu halakorik gertatu”, amaitu du.





dugu. Egia esan, mendialdean dauden herrietako giroa kostan daudenetakoa baino nahiago dugu”.

Pixkanaka herriko giroan murgiltzen joan ziren eta Igor Olaizola hango futbol taldean jokatzeko hasi zen. “Presidentearen familiarekin harreman estua dugu eta udako torneo baten ondoren herriko taldean jokatzeko gonbitea luzatu zidaten. Astebururo hara joatea gogorra zen, baina presidenteak bere etxera joatea eskaini zidan eta azkenean baiezkua eman nien. Taldean herriko jendea bakarrik zegoen, baina ondo hartu ninduten. Lau denboraldi eman nituen San Lorenzo taldean”.

Duela zazpi urte futbola utzi zuen, lesio

*Olaizola Valdezcaray
eski estazioko irakaslea
eta Ezkaraiko San
Lorenzo futbol taldeko
jokalaria izan zen*

baten erruz. Baina beste kirol batzuk ere egin ditu. Valdezcaray estazioan eski irakaslea izan da taberna ireki duen arte. “Dena ezin da. Asteazkenean zehar hemen lan egitea, ostiralean tabernan sartzea eta larunbat goizean eski-estazioara joatea gogorregia da. Taberna goizeko seietan edo zazpitan ixten dugu eta estaziokoa lana zortzietan hasten da...”.

Rym taberna 2009ko irailean hartu zuen. “Hemen hasi nintzen tabernari lanetan, 17 urterekin. Ezkaraiko taberna

gehienetan ere lan egin dut. laz hartu nuen horretan bizpahiru urte eman nituen eta nagusia gaixo jarri zenean negozioaz arduratzeko eskatu zidan. Lanera itzul-tzeko asmoa zuen, baina iazko abuztuan amore eman zuen”.

Urretxuarrak taberna bat hartzeko gogoia zuen. “Tabernako giroa beti gustatu zait eta aukera aprobetxatzea erabaki nuen. Nik hartu nuen arte ostiral eta larunbat gauetan bakarrik irekitzen zen, baina orain ostiral arratsaldetik igande gauera bitartean irekitzen dugu, arratsaldean eta gauez. Lehengo nagusiaren izpiritua mantentzen saiatu naiz, baina telebista jarri dut Realaren partidak ikusi ahal izateko. Bestalde, niretzat Ezkaraiko oso berezia da eta bertako elkartei laguntzen saiatzen naiz”.

Reala ere berezia da Olaizolarentzat. Hala, talde txuri-urdinaren lagunartea sortzea erabaki zuen. “Txikitatik naiz Realzalea, nire ustez, ligak irabazi zituen taldearen eraginez. Ezkarain ere Realzale asko daude, Arconada, Zamora eta gainontzeko taldekideen eraginez. Tabernan lagunartea sortzeko asmoa dugula jakin zutenean, nik espero ez nuen asko etorri ziren. Dena den, gehienak Ezkarain etxebizitza duten gipuzkoarrak dira. Dagoeneko 100 baino gehiago gara”.

Aurkezpen ekitaldia aurki izango da. “Jokariak eraman eta pantailan Realaren historiako irudiak eskaini nahi ditugu. Bestalde, ligak irabazi zituen taldeko jokalariren bat joatea ere gustatuko litzaidake. Horretan gabiltza... Ekitaldia zubiren batean izatea gustatuko litzaidake, halakoetan gipuzkoar asko elkartzen baitira bertan. Bestalde,


Athletic eta Bartzelonak ere lagunartea dituzte Ezkarain eta urtean zehar eurekin ekitaldiak antolatzea gustatuko litzaidake. Horretaz gain, Realeko lagunartean batzarra han antolatzea ere ondo legoke”.

Ikusten denez, Olaizola Realzale peto da. “Irratian igandero Atotxara joateko sarrerak zozketatzen zituzten eta aita adidi egoten zen entzuten eta partidei buruzko datuak apuntatzen ondoren lehia- ketako galderak ondo erantzuteko.

*“Ezkarain ere Realzale
asko daude: lagunartea
sortzeko asmoa dugula
jakin zutenean nik espero
ez nuen asko etorri ziren”*

Askotan joan nintzen Atotxara aitzak irabazitako sarrerei esker. Txapeldunorde izan ginen urtean Anoetan Real Madrili irabazitako partida ere askotan gogoratzen dut. Izugarria izan zen”.

laz Celtaren aurka Anoetan jokaturako partida ere gogoangarria izan zen. Izan ere, egun hartan ospatu zuten igoera txuri-urdinek. Urretxuarrak Ezkarain ospatu zuen. “Lagun dezente elkartu ginen eta txanpain pixka bat ere edan genuen. Orduan erabaki genuen lagunartea sortzea. Lehenagotik buruan nuen, baina egun hartan berotu ginen: jendea animatuta zegoen eta denak laguntzeko prest agertu ziren”, amaitu du Olaizolak.



Alex Areizaga

Informatika

Grooveshark

Bueno, bueno! Badirudi urtea bukatzera zihoala eta osabari pena edo eman diodala, oporretako erretirotik gomendio berri bat bidali baitit. *Grooveshark* bere garaian atal honetan azaldu genuen *Spotify streaming* bidezko musika programaren moduko sistema da, abantaila ugari aurkezten dituen. *Spotify* diskografia handiagoei bideratuta dagoen proiektu bat den heinean, *Grooveshark*-ek abesti solteak igotzeko aukera ere ematen du. Webgunean agertzen duen publizitatea ez da hain intrusiboa (*Spotify* iazko laugarren diru-iturri digitala izatera heldu zen) eta ez du eskatzen programa deskargatzea eta instalatzea. Sare bidez exekutatzen da eta erreproduktorea moldagarriagoa da. Erabiltzaile arruntei ez die erregistrorik eskatzen eta *Premium* kontua ere merkeagoa du, 3 euroan, *Spotify*-ren 10 euroen aldean. Probatzea merezi duen erreminta da *Grooveshark*. Eskerrik asko osaba!!!



Miren Arrieta

Osasuna

Kolesterola

Guk geuk sortzen dugun koipe mota bat da, gure organismoak funtzionamentu egokia izan dezan, bertatik sortzen baitira hainbat hormona, baita D bitamina eta estamuan koipea digeritzeko gatz biliarrak ere. Kolesterola neurritz kanpo dagoenean kalte ere egin dezake, arterietan pilatzen denean ateroesklerosia sortzen baitu eta hortik bihotzeko, buruko eta zirkulazioko hainbat gaitz sor daitezke. Kolesterolaren gakoa neurrian dago: egunean gehienez 300 mg hartzea gomendatzen da. Kolesterola izateaz gain koipe ase asko duten janariak dira odoleko kolesterol-maila igotzen dutenak: erraiak, gurina, esnegaina, hestekiak, haragia, esne eta esneki osoak, arrautzaren gorringoa eta arrainen arrautzak. Bestalde, era industrialean egindako opil, gaileta eta antzerakoek ere (donutsa...), kolesterol asko izateaz gain, trans motako koipeak dituzte eta asko kontsumitzen badira kaltegarriak dira. Zorionez, koipe poliasegabeek kontrako zentzuan lan egiten dute, odoleko kolesterol-maila jaitsi egiten dutelako; intxaurrek eta arrainak, bereziki arrain urdinak, omega-3 motako koipe ugari duelako.

Halako batean

Emaztea tematu egiten zen. Urteak joan eta urteak etorri, beti erretolika bera: abuzturako apiril inguruan hasten zen eztabaida etxean. “Aurten baietz” batak, “ikusiko dugu” besteak, batek “beste urtebete niri kapritxo hori eman gabe”; besteak “ematen dizkizudan gutzia guztiak ahaztu behar al dituzu?”. Pare bat egun bekozkoa belztuta. Ondoren bakea, eta emaztea tematu arren, ez zuten inoiz hegazkinik hartzen.

Ezin jakin oinarrian beldurra zegoen, baina gizonak aitzakia sorta polita zuen ezezkoaren alde: hainbat filmek, bere asmoari komeni zitzaizkionek, arrazoia ematen zioten; bertigoari ere egiten zion dei; filmeetatik at azken urteetan izan zituen albistegietan ere hegazkinik ez hartzeko argudioak... Halakorik, ordea, ez zuen ez imajinatu, ez espero.

Halako batean, batak baietza ahoskatzean eta besteak baietza entzutean, aldatu ziren jarrerak. Ez zien axola izan apirila ez izatea eta ez zuten abuztura arte itxaron. Hasi ziren bai gizona eta batez ere emakumea hartu beharreko erabaki guztiak hartzen, lotu beharreko paperak lotzen, irakurri beharreko bidaia-gidak irakurtzen, egin beharreko mailetak atontzen... Oporretara joateko beharra eta beharra egiten. Horretan ari zirela ere, eztabaidak sortu sortzen ziren, baina beste era batekoak ziren, berriak, trapu zaharrak aireratzekoak ez behintzat.

Datak jartzen direnean, egunak joan eta egunak etorri, iritsi egiten dira. Neguaren ateetan hartu zuten aireportura eramango zituen autobusa. Emaztea beldur zen. Senarrak hegazkinez bidaiatzeari baietz esan zionetik, erabiltzen zituen aitzakiak ahaztuta zituela ematen zuen. Emazteak gogoratuko ote zituen beldurra zuen. Horregatik, nahiz eta senitartekoek eta lagunek euren buruak eskaini bikotea aireportura eramateko, nahiago izan zuen autobusa hartzea, gizonak etxerako buelta aurreratzeko tentazio txikienik ere izan ez zezan.

Halako batean, urduritasuna senar-emazteekin esnatu da. Irtsi da eguna. Autobusean ibiltzea zer den badakite: eskolaume zirela egin zuten ibilaldiren bat; bizikletatik motorrera

edota senargaiaren autora salto egin aurretik, hartu zuten urbanoren bat edo beste; helduagotan egin dute bodegaren batera-edo ibilaldia autobusez. Ez, ez da autobusa aztoratzen dituen. “Gure bizitzako lehenengo hegazkina!”. “Elkarrekin estreinatzen berriz!”.

Fakturatu, egunkaria erosi, komunetik buelta, poliziaren kontroletik pasatu, *duty-free*an sartzean zer sentitzen den deskubritu, kuxkuxean ibili, pantailetan ontziratzeko-ateak begiratu... Zenbat lan oporretara joateko!

Emakumeak guztiaren ardura berak hartzen duela sentitu behar izan du. Gizonak utzi egin dio, ez du ez ezetz esan ez eragozpenik jarri. Aspaldiko partez hegazkina hartzeari baietz esan zion hartan, hark ekarriko zuen soka osoari baietza eman izan balio bezala. Beraz, jadanik aireportuan gustura daude biak: zoroen pare batera eta bestera dabil bata, inguratzen duenak liluratuta, behiak trenari bezala begira-begira dago bestea.

Dena da zuria eta grisa, bi koloreen artean hainbeste ñabardura egon zitekeenik ere! Era guztietako mailetak dabilta batetik bestera. Aldeak daude koloreetan, tamainan, adinean, heldulekuetan, gurpiletan, kopuruan, gogortasunean, letretan, urratuetan... Mila aukera. Ezkondu zirenean oparitu zizkieten maleta dotoreak bi baino ez dira miloi batean. Halaber, senar-emazteak ere pareta baino ez dira ehun bat pertsonaren artean.

Halako batean, liluratuta geldi-geldi zegoenak sumatu du geroz eta jende gehiago dagoela aireportuan, geroz eta azkarrago dabilzala batetik bestera, geroz eta ozenago hitz egiten dutela eta hots handiagoa ateratzen dutela, geroz eta kopeta ilunagoak dituztela.

Amaia Artolazabal Amilleta

www.otamotz.com/index.php Web orrian ipuina osorik irakur dezakezue, *Aldizkaria* saileko *Ipuinak* atalean.

Ana Peña

Ana Peña zumarragarra 28 urte ditu eta San Jose ikastetxean eta Joxe Mari Iparragirre institutuan egin zituen oinarrizko ikasketak. Ondoren Gasteizera joan zen Artearen Historia ikastera. Ikasketak bukatu zituenetik Artium museoan, Mirandaolan eta Zumarragako artxibategian lan egin du. Abenduaren 11n 'Zumarragako arte sakratua liburua' aurkeztu zuen. Bertan, besteak beste, bi mito hautsi ditu. Antioko baselizari dagokionez, gotikoa dela dio eta ez erromanikoa. Parrokia, berriz, berpizkundekoa da eta ez du zentzurik euskal gotikoaz hitz egitea.

Zer izan nahi zenuen umetan?

Andereñoa. Asko gustatzen zitzaidan horretara jolastea.

Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Irakurtzea, pelikulak ikustea eta lagunekin egotea.

Bizitzeko toki bat?

Gasteiz. Hiria da, baina txikia. Dena gertu du eta aldi berean eskaintza zabala.

Urretxuko eraikin sakratu gustukoena?

San Martin de Tours eliza.

Zumarragako eraikin sakratu gustukoena?

San Kristobaleko baseliza.

Urretxuko eraikin zibil gustukoena?

Ipeñarrieta jauregia.

Zumarragako eraikin zibil gustukoena?

Legazpi dorretxea.

Munduko eraikin sakratu eta zibil gustukoena?

Sakratua Istanbuleko Santa Sofia eta zibila edozein museo.

Historiako zein garaitara bidaiatuko zenuke?

Berpizkundera.

Pertsonaia historiko bat?

Boticcelli.

Ilehoriak ala beltzaranak?

Beltzaranak.

Egindako azken oparia?

Kamiseta bat, mutil lagunari.

Eta jasotakoa?

Amak luma bat oparitu zidan liburua idazten hasi nintzenean.



Ilusio handia egin zidan, aita zenarena baitzen.

Data bat?

Santa Isabel eguna.

Mutil eta neska izen bana?

Neskarena Lur eta mutilarena Santiago (aita zenarena).

Zein egunkari irakurtzen duzu?

Normalean, *Berría* eta *Gara*. *El Diario Vasco* ere sarritan irakurtzen dut.

Gustuko telebista saioa?

Pelikula on bat.

Bereziki gorroto duzuna?

Txutxumutxu saioak.

Pelikula bat?

Charles Chaplin-en *Modern times*.

Liburu bat?

Cien años de soledad. Bestalde, Chomsky-renak asko gustatzen zaizkit.

Abesti bat?

Extremoduro taldearen edozein.

Soinu bat?

Rocka.

Usain bat?

Janariarena.

Janari bat?

Arroza.

Ura ala...

Ardoa.

PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO PREBENTZIO ZERBITZUA

**GURE LANAK
PREBENTZIOA
DU HELBURU**



KALITATEZKO ZERBITZU ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA ETA BEZEROARI ARRETA

Argixao industrialdea, 55 pabiloia - 20700 ZUMARRAGA (Gipuzkoa)

☎ 943 72 41 00

e-mail: administracion1@premank.com

IRNASA EURO, S.L.

AHOLKULARITZA ETA KALITATE,
INGURUMEN ETA
LAN-ARRISKUEN ARLOKO
SISTEMAK


Argixao industrialdea, 55 pabiloia
☎ 943 72 41 00 - Fax: 943 72 49 09

e-mail: irnasa@facilnet.net
ZUMARRAGA



Construcciones **MENDIOLA**

Labeaga, 7
20700 URRETXU (Gipuzkoa)
Tf. 943 72 05 11
Fax: 943 72 44 10
E-mail: mendiola@cmendiola.com
www.cmendiola.com



Etxebizitzen eraikuntza
Industria pabilioiak
Urbanizazio lanak